

Gizarte-zerbitzuen gidaliburua



**Gizarte zerbitzuak,
herriarren eskubidea**



ZER DA ETA NORENTZAKO?

Esku artean duzun informazio-gidaliburu hau eta bertan dagoen informazioa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara sartzeko atek dira. Sistema horren helburu nagusia da Deban errolatuta gauden eta Deban bizi garen pertsonen gizarte-premiak antzematea eta premia horiei erantzutea.

Gizarte Zerbitzuen Sistemaren helburua

- Autonomia pertsonala sustatzea eta mendetasunaren ondorioz pertsonak eta familiek dituzten premiak prebenitzea eta premia horiei erantzutea.
- Babesgabetasun-egoeren ondorioz sortutako premiak prebenitzea eta premia horiei erantzutea.
- Bazterketa-egoerak prebenitzea eta egoera horiei erantzutea, eta pertsona, familia eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- Larrialdi-egoeren ondorioz sortutako premiak prebenitzea eta premia horiei erantzutea.

PROFESIONALAK ZURE ZERBITZURA

Deban erroldatutako edonork, autonomia, integrazioa edo gizarte-ongizatea hobetzeko gizarte-laguntza behar badu, laguntzeko prest dauden profesionalen talde bat du eskura.

Behar izanez gero, gure udalerriko gizarte-langileek egoera baloratu eta diagnostikoa egingo dute.

Eta horren arabera zehaztuko dute zer pauso eman behar dituzten eta planteatutako premiei erantzuteko zer zerbitzu eta prestazio antolatu behar diren.

ZER
ZERBITZU
ETA PRESTAZIO
DITUGUN



1. PRESTAZIO EKONOMIKOAK:

Gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL): denboraldi oso zehatz baterako diru-laguntza ekonomikoak dira, gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko ezinbestekoak diren ohiko edo ezohiko gastu espezifikoak (etxebizitza, etxebizitzako mantentze-lanak eta ekipamendua, lehen mailako beharrak...) ordaintzeko baliabide nahikoa ez duten pertsonentzat.

Ohiz kanpoko banako laguntzak: beharrean edo egoera zailean dauden familien oinarrizko premiei erantzuteko diru-laguntza dira (ez dira aldizkakoak).





2. GIZARTERATZEKO ETA LANEAN HASTEKO ZERBITZUA:

Helburua da gizarte- eta heziketa-babesa eta babes psikosoziala osatzeko lagun egitea.

Zerbitzu hau gizarte-egoera ahulean dauden eta gizarteratzeko babesa behar duten pertsonentzako da, prestazio ekonomikoen onuradun izan ala ez.

3. ADINDUAK:

- **Etkez etxeko laguntza-zerbitzua:**

Norberaren zaintzan eta eguneroko etxeko lanetan zailtasunak dituzten pertsona eta familientzako zerbitzu integral bat da. Etxez etxeko laguntzaileek onuradunen etxean bertan esku hartzen dute.

Laguntzaileen laguntzarekin, pertsona horien autonomia-murrizketa konpentsatzen da eta beren etxean bizi daitezen errazten da.





• Etxez etxeko telelaguntza:

Adinagatik edo egoera fisiko ahulagatik presako laguntza eta gau eta egungo arreta behar dezaketen pertsonen premiei erantzuteko zerbitzua da.

Zertan datza?

Eragiketa-zentro batera konektatuta dagoen telefono-terminal baten bitartez eta botoi bat sakatzearekin bakarrik, sistemak honako hauek eskaintzen ditu:

- Osasun-zerbitzuak, poliziaren eta suhiltzaileen zerbitzuak eta abar.
- Senitartekoak, bizilagunak eta abar jakinaren gainean jartzea.
- Profesional espezializatuen arreta pertsonalizatua.
- Arriskuak antzemateko aholkuak.
- Medikuen agenda eta orogarriak.
- Gizarteko eta komunitateko informazioa eta beste zerbitzu batzuk.



- **Mendetasunaren Legearen kudeaketa:**

- **Familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa**

Helburua da **profesionalak ez diren** zaintzaileek ematen duten arretari dagozkion gastuak ordaintzen laguntzea; prestazio hori jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen direnean onartzen da.



- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

Zaintzaile profesionalak kontratatzeko gastuen ordainketa osatzeko prestazioa da.

- Eguneko egoitzak

Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri eguneko arreta integrala eskaintzen diete. Egoitza horien helburua da autonomia pertsonalaren maila hobetzea eta ahal den neurrian maila horri eustea, eta familiei eta zaintzaileei laguntzea.

- Egoitza-zentroak

Zentro horietan autonomia funtzionalik ez duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri gau eta eguneko arreta integral eta etengabea ematen diete. Gure inguruan baditugu egoitza-zentro batzuk, Mutriku, Elgoibar eta Zumaian, adibidez.

- Aldi baterako egonaldiak

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeaz arduratzen diren senitartekoei eskaintzen zaie zerbitzu hori, merezi duten atsedena har dezaten. Egonaldia egoitza-zentro batean egiten da eta denbora jakin baterako izaten da: mendekotasuna duen pertsonaz arduratzen den senitartekoa egongo ez den denborarako.





- Laguntza teknikoak

Mugikortasun gutxi duten edo batere mugikortasunik ez duten pertsonen autonomia edo zaintza errazteko laguntza-produktuak dira. Adibidez: ohe artikulatuak, garabiak, gurpil-aulkiak, eskorgak, dutxarako aulkiak eta abar.

- **Adinduentzako beste zerbitzu batzuk:**

Debako egoitzako instalazioetan, gainera, adinduentzako espresuki antolatutako zerbitzu batzuk daude.

Zerbitzu horiek (kafetegia, ile-apaindegia, podologia eta abar) gure adinduen ekonomia ezegonkorra kontuan hartuta jarritako tarifak dituzte.





4. FAMILIAK ETA ADINGABEAK:

Zerbitzu horiek hezkuntzaren, afektibitatearen eta gizarte-harremanen arloetan zailtasunak dituzten adingabeentzako dira. Programetan zerbitzu horren onuradun diren haur eta nerabeen familientzako arreta ere sartzen da.

Hiru programa-mota daude:

- Komunitate-programa, 6 eta 12 urte arteko haurrentzat (jolas tailerra).
- Nerabeentzako (12-16 urte) gizarte- eta heziketa-programa, Gaztelekun.
- Adingabeak dituzten familientzako gizarte eta hezkuntzako esku-hartze programa.

5. EMAKUMEAK:

- **Aholkularitza juridikoa:** lege-aholkularitza ezkontidearekin arazoak dituzten eta tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten pertsonentzako.

- **Banako eta taldeko arreta psikologikoko zerbitzua.** Indarkeria matxista jasaten duten, eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen edo baldintzatzen dizkieten erasan psikoemozionalak dituzten eta tratamendu psikologikoa hasi nahi duten emakumeentzako da.

Indarkeria matxistaren beste biktima batzuei (seme-alabei) eta erasotzaileei ere eskaintzen zaie arreta.

- **Aldi batean ostatu hartzeko eskualdeko etxebizitza.**

- **Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta soziojuridikoko zerbitzua.**

Arlo juridikoko baliabideen eta familia-zuzenbidearen inguruko lege-informazioa eta aholkularitza eskaintzen da, ikuspegi feminis-tatik eta ahalduntzea oinarri hartuta; eta arreta banakoa eta perso-nalizatua da.

6. DESGAITASUNAK:

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako informazio-eta aholkularitza-zerbitzua.

- Desgaitasuna baloratzea.
- Aparkatzeko txartela bideratzea.
- Eta abar.





Non GAUDEN

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua • Simon Bernaluze plaza, 1

Tel.: 943 19 29 33 • Faxe: 943 19 13 39

gizartezerbitzuak@deba.eus